



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Zatozte nirekin eta giza arrantzale egingo zaituztet”

2024ko urtarrilaren 21a
Urteko 3. igandea (B)

Marko 1, 14-20

Joan Bataiatzailea kartzelan sartu eta gero, Jesus Galileara etorri zen eta Jainkoaren berriona hots egiten zuen. Honela zioen: “Betea da garaia, eta gainean duzue Jainkoaren erregetza. Bihozberri zaitetzte eta sinetsi berriona”.

Jesusek, Galileako aintzira-bazterrean zehar zihoala, Simon eta honen anaia Andres ikusi zituen sareak uretara botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: “Zatozte nirekin eta giza arrantzale egingo zaituztet”.

Haiek, besterik gabe, sareak utzi eta jarraitu egin zioten.

Aurreraxeago, Santiago eta Joan anaiak, Zebedeoren semeak, ikusi zituen; sare-konponketan ari ziren beren untzian. Ikusi bezain laster, dei egin zien. Haiek, beren aita Zebedeo eta mutilak untzian utzirik, Jesusen ondoren abiatu ziren.

Garbitu zaitetze eta sinistu egizue Barri Ona.

Bide okerretik alden dutzean baino Berarekin joatean datza benetako damutasuna.

POSIBLE DA BESTE MUNDU BAT

Jose Antonio Pagola

Ez dakigu ziur zein erreakzio izan zuten Bataiatzailearen ikasleek Herodes Antipasek beren maisua Makeronteko gotorlekuan preso sartu zienean. Badakigu zein erreakzio izan zuen Jesusek. Ez zen ezkutatu basamortuan. Ezta Nazareteko bere familiartekoen artean ere. Galileako herrixketan barna hasi zen mezu berezia eta harrigarria hots eginez.

Markos ebanjelariak honela laburtu du: «**Galileara joan zen Jainkoaren Berri Ona aldarrikatuz**». Jesusek ez du errepikatu Bataiatzailearen predikua, ez da mintzo Jordaneko haren bataioaz ere. Berri eta on bezala aldarrikatu du Jainkoa. Hori du bere mezua.

«**Bete da epea**». Israelen bizi duten itxarote-aldia bukatu da. Bukatu da Bataiatzailearen aldia ere. Aro berri bat hasi da Jesusekin. Jainkoak ez gaitu bakarrik utzi nahi geure problema, sufrimendu eta erronken aurrean. Gurekin batean gizatasun handiagoko mundu bat eraiki nahi du.

«**Hurbil da Jainkoaren erreinua**». Besterik ez bezalako ausardiaz, jende guztia harriarazi du Jesusek, inongo profeta ausartu ez zen zerbait iragarritz: «Hemen da Jainkoa, bere indar zuzentasun-sortzailearekin, gure artean errege nola izango». Presentzia on eta adiskidetsu bezala sentitzen du Jesusek Jainkoa, gure artera nola sartuko dabilena, gure bizitza gizatasunez betetzeko.

Horregatik, Jesusen bizitza osoa esperantzarako deia da. Bada beste aukerarik. Ez da egia historiak lurreko boteretsuek trazatzen dioten injustziaren bidean ibili behar duela ezinbestean. Posible da beste mundu zuzenago eta haurridetsuago bat. Alda dezakegu historiaren ibilbidea.

«**Bihotz-berri zaitetzte**». Jada ezinezkoa da bizitzea ezer gertatzen ari ez balitz bezala. Lankide izateko eskatzen die Jainkoak bere seme-alabei. Horregatik egin du Jesusek oihu: «Aldatu zeuen pentsaera eta jarduera». Pertsonak behar dugu aldatu lehenik. Jainkoak ez du ezer ezartzen indarrez, baina beti ari da zirika gizatasun handiagoko bizitza egin dezagun.

«**Sinets ezazue Berri On honetan**». Har ezazue aintzat. Esna zaitetzte axolagabe izatetik. Eragin zeuen energiari. Sinetsi mundua gizatar egin daitekeela. Sinetsi Ebanjelioaren indar askatzailean. Sinetsi daitekeena dela eraldatzea. Itsatsi munduan konfiantza.

Zer egin diogu Jesusen mezu liluragarri hori? Nolatan ahaztu ahal izan dugu? Zerekin trukatu dugu? Zertan ari gara trabaturik, lehenengo gauza «Jainkoaren erreinua eta haren zuzentasuna bilatzea» bada? Nolatan bizi gintezke lasai, ikusiz gizadia ezabatzen ari dela bakeaz eta zuzentasunaz bete den Jainkoaren egitasmo kreatzailea?